

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Larrialdi
egoeretarako, prest**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Euskara	943 25 18 83
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeako telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Uholdeen eta haizeteen larrialdi plana aurkeztu du udalak.....	3
Larrialdi plana, pausoz pauso	4
Eta norbere etxean nola prestatu?	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan daukazu Herritarren
Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak
atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu
edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian,
astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik,
ostegunetan izan ezik. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara,
etenik gabe ematen zaie zerbitzua herritarrei.



Uholdeen eta haizeteen larrialdi plana aurkeztu du udalak

Tresna bizia izan nahi du planak, eta etengabe eguneratuko da

Muturreko fenomeno meteorologikoak gertatu egiten dira, eta funtsezkoa da gertatzen direnerako prest egotea. Horregatik, larrialdi plan zabal bat sortzen ari da Azpeitiko Udala, era askotako arriskuen (suteak, arrisku erradiologikoak, arrisku geologikoak, izurriteak...) aurrean prestatuta egoteko.

Uholdeen eta haizeteen atala amaituta dauka dagoeneko, eta urtarilean aurkeztu zuen jendaurrean. Helburua da egoera kaltegarriak pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean eragin ditzaketen ondorioak ekiditea eta kalteak ahalik eta gehien murriztea.

Larrialdietan espezializatutako SIE enpresak egin du Azpeitiko plana. Tresna bizi bat izan nahi du; hau da, etengabe eguneratuko da. Planak prebentzioan jartzen du indarririk handiena; eta, horrez gain, herrian eskura dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabili ahal izateko planifikazioa eta antolaketa egiten ditu.



Larrialdi plana, pausoz pauso

Zer egingo da prebentzioaren arloan?

Udal larrialdi planak indar berezia jartzen du prebentzioan; hau da, euri edo haize handiko egunak etortzen badira, oso garrantzitsua da aurrez ondo prestatuta egotea herria, kalteak ahalik eta txikienak izateko.

Uholdeei lotuta, ibaien kudeaketa da funtsezko kontuetako bat. Horren harira, askotan sortzen da galdera bat: ibaiko landarediak ez al du urak erraza-go ateratzea eragingo? Adituek argi dute erantzuna: ibaietan landaredia egotea komeni da, uraren abiadura eta indarra murrizten laguntzen duelako.

Hala ere, kontuz ibili behar da zubi inguruetan; izan ere, arriskutsua izan daiteke eremu horietan materiala pilatzea, urari pasatzea eragotziko liokeelako.

Horregatik, zubien inguruak aldiro-aldiro garbitzen jarraituko du udalak.

Arketak eta ur kanalizazioak ere sarri gainbegiratuko ditu. Bi identifikatu ditu bereziki zaindu beharrekoak: Soreasukoa eta Ikasberri ikastolaren ondokoa, Xoxoteko urak hartzen dituenak.

Ibaietan landaredia egotea komeni da, uraren abiadura eta indarra gutxitzen laguntzen duelako

Ibaietako emariaren informazioa uneoro eskura izateko, erregeletak ere jarriko ditu udalak, gaur-gaurkoz ez baitaude. Loiolako zubian, San Martin Estratan, Landetako gasolindegia inguruan eta Madalena inguruan ipiniko ditu aurreengoak.

Herritarrek honezkero ikusiko zituzten seinale batzuk ere jarri ditu udalak kale batzuetan: uholde eremuen berri ematen duten seinaleak dira. Euri askoko egunak iragartzen direnean, herritarrei eremu horietan ez aparkatzeko gomendatuko zaie. Halako egunetan, aparkatzeko erraztasunak ere jarriko dira; izan ere, ikastetxeetako aparkalekuak zabalduko dira.

Eta haizeteekin, zer?

Haizeteek eragin ditzaketen arriskuak gutxitzeko, berriz, herriko zuhaitzen egoeraren inbentario bat dagoeneko eginda dauka udalak, eta inbentario hori eguneratuta edukiko du, egoera txarrean edo arriskuan egon daitezkeenak kentzen joateko. Egoera txarrean egoteko itxura duen zuhaitzen bat ikusiz gero, eskertzekoa da herritarrek horren berri ematea Udaltzaingoari.

Herrian egiten ari diren obrak ere kontuan izango ditu udalak, eta aldarmioak, garabiak eta horrelakoak behar bezala edukitzeko eskatuko die jabeei, haizeak eragin ditzakeen arriskuak saihesteko. Horrez gain, arrisku eremuetan dauden zabor edukiontzia ere identifikatuko ditu, alboetan euste zutoinak jarri edo ez aztertze.

Zer egingo da alerta egoeretan?

Prebentzioan eragiteak arriskuak gutxitzen laguntzen du, baina euriteak eta haizeteak ezin dira saihestu. Etorri behar badute, etorri egingo dira. Alabaina, iragarpenetan aurrerapen handiak eman dira, eta horrek asko laguntzen du arriskuen aurrean prest egoten.

Azpeitiko udal larrialdi planak jasotzen duenez, iragarpenek alerta egoeraz ohartarazten dutenean, Kontingentzia Mahaia elkartu egingo da. Mahai horretan, udal ordezkariak ez ezik (alkate, zinegotzi,



Larrialdi plana, pausoz pauso

udaltzain, brigada...), Ibai Eder urtegiko ordezkariak eta suhiltzaileak ere egongo dira. Egoera aztertu ostean, lehen erabakiak hartuko ditu mahai horrek.

Herritarrak gertatzen ari denaren jakitun izateko, hainbat bide erabiliko ditu udalak. Udalaren sare sozialen eta tokiko komunikabideen bidez emango du informazio eguneratua, baina teknologia berriak erabiltzeko hainbesteko ohiturarik ez dutenak ere kontuan hartuz, megafonia bidez ere egingo ditu abisuak, SMS mezuak bidaliko ditu...

Komenigarria dela ikusiz gero, arrisku eremueta-tik autoak kentzeko eskatuko zaie herritarrei, eta sarbideak eta errepideak ere itxiko ditu. Bai uholde arriskuen aurrean, bai haizete arriskuen aurrean, zabor edukiontzia ez dira hustuko, solte geratzen badira, kalte handiak eragin ditzaketelako.

Ibai Eder urtegiari ere arreta berezia jarriko zaio, ur asko etor daitekeela uste bada, une horretarako urtegia ez dadin beteta egon.

Zer egingo da uholdeak gertatzen badira?

Ura ibaitik ateratzen bada, lehen unean, gauza bakarra egin behar da: itxaron. Pertsonen bizitza arriskuan dagoenean bakarrik egin behar dira esku hartzeak; izan ere, itxura batera arrisku txikia izan arren, 15 zentrimetroko ura ere arriskutsu bihur daiteke.

Larrialdi egoeretan, Krisi Mahaia bilduko da, beharrezko profesional guztiekin (Osakidetza, suhiltzaileak...), egoeraren jarraipena egiteko eta babes neurriak hartzeko. Herritarrei informazioa emateko ahalegin berezia egingo du udalak, eta Udaltzaingoaren arreta zerbitzua ere indartu egingo du.

Jendeak etxetik atera behar izanez gero, Izarraitz pilotalekua egokituko du udalak lotarako; horrez gain, baliabideak prestatzen hasiko da alerta egoera pasatzen denerako (motoponpak...).



Eta norbere etxean nola prestatu?

Udal larrialdi planak herritarrentzako babes aholkuak ere jasotzen ditu. Ahal bada, kalera ez ateratzeko esaten du, eta horrekin batera, balkoietako loreontziak, zaborrontziak, erremintak eta abar kentzeko.

Larrialdiak etxetik kanpo harrapatuz gero, leku seguru batean edo aterpean babestea komeni da, leiho, zuhaitz, kable eta metalezko objektuetatik urrun. Autoz ibili behar izanez gero, martxa bat edo bi jaitsi behar dira, autoak indar mekaniko handiagoa izan dezan.

Lineak kolapsa ez daitezen, premiazkoa ez bada behintzat, hobe da telefono deirik ez egitea. Horrez gain, dokumentu eta objektu garrantzitsuak (etxeko eskriturak...) ez dira garajea gorde behar.

Larrialdi egoeretan, oinarritzko zerbitzuak (argindarra, ura edo gasa) etenda egon daitezke ordu edo egunetan. Horregatik, gomendagarria da etxean larrialdietarako kit txiki bat prest izatea. 72 orduko larrialdi kasuetarako, besteak beste, produktu hauek izatea etxean aholkatzen da.

72 ORDUKO BIZIRAUPEN KITA

Elikagaiak

- Ura (5 litro pertsonako)
- Iraungitzen ez den janaria (hozkailek behar ez duena)



Elektronika

- Pilak
- Irratia
- USB bateria
- Mugikor kargagailua



Osasuna

- Sendagaiak
- Higiene produktuak
- Betaurrekoak



Tresnak

- Erregaia
- Su txikia
- Linterna
- Labana
- Su itzalgailua



Dokumentuak eta dirua

- Nortasun agiriaren kopia
- Sendagaien errezetak
- Eskudirua





Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus